


EUSKARA JALGI  
HADI PLAZARA

EUSKARA,  
RAYONNE  
SUR LES PLACES



POLITIQUE  
LINGUISTIQUE  
DE LA COMMUNAUTÉ  
D'AGGLOMÉRATION  
PAYS BASQUE  
**EN FAVEUR DE LA  
LANGUE BASQUE**

EUSKAL  
HIRIGUNE  
ELKARGOAREN  
**EUSKARAREN  
ALDEKO  
HIZKUNTZA  
POLITIKA**



# L'ÉDITO DU PRÉSIDENT

UNE STRATÉGIE POUR REVITALISER LA LANGUE BASQUE

La langue basque est constitutive de l'histoire et de l'identité de notre territoire. Au-delà d'en être un élément culturel fondateur, elle contribue depuis des siècles à la singularité et à l'attractivité du Pays Basque. Après une période de déclin progressif, principalement due à la rupture de la transmission familiale, elle connaît aujourd'hui un renouveau grâce à l'action conjuguée des pouvoirs publics et de la société civile. La réappropriation de la langue basque par les jeunes générations est en marche.

Cette reprise significative n'est toutefois pas suffisante pour compenser la perte des locuteurs anciens et l'arrivée de nouvelles populations non basco-phones. Si les efforts déployés depuis une cinquantaine d'années démontrent que la revitalisation de la langue basque est possible, son maintien et son développement nécessitent un engagement accru sur le long terme.

Aujourd'hui, notre Communauté d'Agglomération reconnaît officiellement les langues basque et gasconne-occitane comme langues de son territoire, aux côtés du français.

Par cette délibération, j'ai souhaité que la Communauté d'Agglomération Pays Basque officialise son engagement complet dans l'effort de revitalisation de ces langues aux côtés de ses partenaires publics.

Pour la langue basque, cela passe par la mise en œuvre d'une politique linguistique communautaire ambitieuse, tout en assumant un rôle moteur dans la politique linguistique partagée, définie et mise en œuvre au sein de l'Office Public de la Langue Basque.

Notre communauté devra aussi s'attacher, en parallèle, à faire évoluer les cadres législatifs et réglementaires et à mobiliser les dispositifs juridiques indispensables pour assurer la revitalisation de la langue basque: la mise en œuvre d'une expérimentation linguistique, la ratification de la charte européenne des langues régionales ou minoritaires, la reconnaissance de co-officialité.

Je tiens à souligner que la reconnaissance officielle de la langue basque n'entend pas s'opposer, ni même atténuer les prescriptions juridiques s'appliquant à la langue française. La reconnaissance officielle de la langue basque et la politique linguistique en sa faveur s'inscrivent dans le respect de principes fondateurs, clairement définis: une démarche volontaire respectueuse de la libre adhésion des acteurs et des locuteurs, comme des cadres légaux réglementaires en vigueur.

L'avenir de la langue basque sur notre territoire relève de la responsabilité de la Communauté Pays Basque. Je m'attacherai donc à déployer une politique linguistique ambitieuse au service de sa revitalisation.

Jean-René ETCHEGARAY

Président de la Communauté d'Agglomération Pays Basque



# LEHENDAKARIAREN AITZIN-SOLASA

EUSKARA BIZIBERRITZEKO ESTRATEGIA

Euskara gure lurraldearen historiaren eta nortasunaren osagai nagusietarik bat da. Gure kulturaren euskara funtsezkoa da: atzo orain bezala, Ipar Euskal Herriari nortasuna ematen dio eta gure lurraldea erakargarriago egiten du. Azken hamarkadetan euskarak gainbehera ezagutu ondoan, nagusiki familia transmisioaren hausturagatik, egun, botere publikoen eta jendarte zibilaren ekintza bateratuari esker, euskara berpizten ari da. Hala, belaunaldi gazteak euskara berreskuratzen ari direla ohartzen gara.

Hala ere, berreskuratze hori ez da nahikoa hiztun zaharren galera eta euskaldunak ez diren herritar berrien etorrera konpentsatzeko. Azken berrogeita hamar urteetan egin indarrek euskararen biziberritzea posible dela erakutsi dute, baina, hizkuntza bizirik mantentzeko eta garatzeko, epe luzeko lana eta engaiamendu handiagoa behar-beharrezkoak dira.

Euskal Hirigune Elkargoak euskara eta gaskoi-okzitaniera Ipar Euskal Herriko hizkuntza gisa ofizialki aitortu ditu, frantsesaren ondoan.

Euskal Hirigune Elkargoa bere partaide publikoekin lankidetzan, hizkuntza horien biziberritzearen alde osoki ariko dela ofizialki adierazteko xedea izan dut delibero horren bitartez.

Horretarako, euskarari dagokionez, Euskal Elkargoak hizkuntza politika anbiziotsua gauzatu behar du eta Euskararen Erakunde Publikoaren baitan zehaztu eta obratu hizkuntza politika partekatuaren bultzatzaile eta akuilatzailea izan.

Paraleloki, euskararen biziberritzea segurtatzeko, lege eta arauen mugei aldaketak ekartzera bermatuko da Euskal Hirigune Elkargoa, bai eta beharrezkoak diren baliabide juridikoak mobilizatzea ere: hizkuntza esperimendazio baten obratzea, Eskualde Hizkuntzen edo Hizkuntza Gutxituen Europako Kartaren berrestea, koofizialtasunaren onartzea.

Azpimarratu nahi nuke euskararen aitorten ofizialak ez duela frantsesari aplikatzen zaizkion preskripzio juridikoen kontra joateko edo haien ahultzeko xederik. Euskararen aitorten ofiziala eta bere aldeko hizkuntza politika argiki definitu funtsezko printzipioen errespetuan egiten dira: hiztun eta eragileen hautu askea zein indarrean diren arau eta legeak errespetatzen dituen desmarta deliberratu.

Euskararen geroa gure lurraldean, Euskal Elkargoaren ardurapean da. Horretarako, hizkuntza politika anbiziotsua bideratuko dut euskararen biziberritzearen alde.

Jean-René ETCHEGARAY

Euskal Hirigune Elkargoko lehendakaria

# SOMMAIRE

Présentation du projet .....	6-7
PARTIE 1 • Éléments de contexte .....	8-13
PARTIE 2 • Les principes du projet .....	14-17
PARTIE 3 • Périmètre d'intervention .....	18-81
<b>TRANSMISSION</b> .....	20-29
Fiche 1 Enseignement .....	20-21
Fiche 2 Petite enfance .....	22-23
Fiche 3 Loisirs .....	24-25
Fiche 4 Apprentissage du basque aux adultes à visée personnelle .....	26-27
<b>USAGE</b> .....	28-63
Fiche 5 Culture .....	28-31
Fiche 6 Mobilité .....	32-33
Fiche 7 Services à la personne .....	34-37
Fiche 8 Eau .....	38-39
Fiche 9 Déchets .....	40-41
Fiche 10 Aménagement .....	42-43
Fiche 11 Transition écologique & énergétique .....	44-45
Fiche 12 Développement économique .....	46-59
Fiche 13 Tourisme .....	50-53
Fiche 14 Enseignement supérieur .....	54-57
Fiche 15 Appui aux communes et syndicats .....	58-61
Fiche 16 Fonctionnement et vie de l'institution intercommunale .....	62-65
<b>FONCTIONS SUPPORTS ET TRANSVERSES</b> .....	66-79
Fiche 17 Formation professionnelle .....	66-69
Fiche 18 Traduction .....	70-71
Fiche 19 Stratégie d'information et de sensibilisation en direction de la population .....	72-75
Fiche 20 Dispositif d'évaluation .....	76-77
Fiche 21 Transfrontalier .....	78-79
PARTIE 4 • Modalités de mise en œuvre .....	80-83



## LEXIQUE

Euskara jalgi hadi plazara .....	Euskara, rayonne sur les places ... 1
Bagoaz? .....	Allons-y ... 16
Prefosta .....	Évidemment ... 17
Prest? .....	Prêts ? ... 31
Izan ontsa .....	Portez-vous bien ... 49
Hor duzu xehea ogiarentzat .....	Voici votre monnaie pour le pain ... 49
Muxu .....	Bisou ... 53
bozka zerrendan izena emateko? .....	Pour m'inscrire sur la liste électorale ? ... 61
Zaude istant bat, inprimakia ematen dizut .....	Attendez un instant, je vous donne le formulaire ... 61
Euskara ikasi .....	Apprendre l'euskara ... 69
Euskarak biltzen gaitu .....	L'euskara nous rassemble ... 75

# AURKIBIDEA

Proiektuaren aurkezpena .....	6-7
1. ZATIA • Testuingurua .....	8-13
2. ZATIA • Proiektuaren printzipioak .....	14-17
3. ZATIA • Esku hartze eremua .....	18-81
<b>TRANSMISIOA</b> .....	20-29
1. fitxa Irakaskuntza .....	20-21
2. fitxa Lehen haurtzarora .....	22-23
3. fitxa Aisialdia .....	24-25
4. fitxa Helduen norbanako euskalduntzea .....	26-27
<b>ERABILPENA</b> .....	28-63
5. fitxa Kultura .....	28-31
6. fitxa Mugikortasuna .....	32-33
7. fitxa Jendeenganako zerbitzuak .....	34-37
8. fitxa Ura .....	38-39
9. fitxa Hondakinak .....	40-41
10. fitxa Antolamendua .....	42-43
11. fitxa Trantsizio energetiko eta ekologikoa .....	44-45
12. fitxa Garapen ekonomikoa .....	46-59
13. fitxa Turismoa .....	50-53
14. fitxa Goi mailako irakaskuntza .....	54-57
15. fitxa Herri eta sindikatuari laguntza .....	58-61
16. fitxa Elkargoaren bizia eta funtzionamendua .....	62-65
<b>SUSTENGU ETA ZEHARKAKO FUNTZIOAK</b> .....	66-79
17. fitxa Formakuntza profesionala .....	66-69
18. fitxa Itzulpenak .....	70-71
19. fitxa Informazio eta sentsibilizazio estrategia .....	72-75
20. fitxa Ebaluaketa dispositiboa .....	76-77
21. fitxa Mugaz gaindiko lankidetzak .....	78-79
4.ZATIA • Obratzeko moldeak .....	80-83

## HIZTEGIA



# EUSKARA, RAYONNE SUR LES PLACES

PRÉSENTATION DU PROJET PAR BEÑAT ARRABIT, VICE-PRÉSIDENT  
EN CHARGE DE LA POLITIQUE LINGUISTIQUE

"Euskara jalgi hadi plazara" («Euskara, rayonne sur les places») écrivait le poète Bas-Navarrais Bernat Etxepare en 1545, dans *Linguae Vasconum Primitiae*, premier ouvrage imprimé en langue basque avec la volonté de diffuser l'euskara et la faire entrer dans l'ère moderne. Un acte fondateur pour l'action en faveur de la langue basque.

La Communauté Pays Basque s'inscrit dans cette continuité, en élaborant sa propre politique linguistique, dans le but d'insuffler l'euskara sur toutes les places du Pays Basque.

Dans le cadre de sa délibération du 4 février 2017, la Communauté Pays Basque s'est engagée à définir et mettre en œuvre une politique linguistique en faveur de la langue basque à travers les compétences du bloc communal.

Le présent document, élaboré par les élus communautaires, en concertation avec les opérateurs linguistiques, fonde notre politique linguistique en faveur de la langue basque.

En intervenant sur les compétences du bloc communal, la Communauté Pays Basque s'attachera à réunir les conditions obligatoires à l'émergence de locuteurs bascophones complets :

- en travaillant à l'organisation d'une offre bilingue dans les services à la population proposés par la Communauté Pays Basque, les communes et leurs groupements, sur l'ensemble des bassins de vie, afin que les habitants qui le souhaitent puissent utiliser et transmettre la langue basque au quotidien, dans un contexte de proximité.

- en menant une action d'information et de sensibilisation permanente en direction des habitants du territoire, pour les amener à utiliser ces services, et encourager de manière générale l'adhésion de la population et le développement des dynamiques bascophones à l'échelle des bassins de vie.

Par cette stratégie qui consiste à responsabiliser et accompagner les acteurs du bloc communal et à mobiliser la population autour de la langue basque, l'objectif est de générer une multiplication des initiatives à l'échelle des bassins de vie et d'augmenter ainsi l'effort en matière de politique linguistique.

Ce document constitue le cadre de référence de l'intervention de la Communauté Pays Basque en matière de politique linguistique en faveur de la langue basque. Il en fixe les objectifs, la stratégie, le périmètre d'intervention ainsi que les grandes orientations.

Année après année la déclinaison opérationnelle sera précisée dans le cadre de programmes de travail. Un suivi et une évaluation permanente du processus de mise en œuvre de cette politique linguistique permettront d'en mesurer l'efficacité au regard des objectifs fixés.

Enfin parallèlement à la mise en œuvre de la politique linguistique, dès cette année, un chantier visant à définir un projet d'expérimentation linguistique sera lancé. Notre ambition est qu'il apporte une réponse aux blocages juridiques que connaît aujourd'hui la politique publique en faveur de la langue basque, ouvrant de ce fait une nouvelle étape dans son processus de construction.



# EUSKARA JALGI HADI PLAZARA

PROIEKTUAREN AURKEZPENA: BEÑAT ARRABIT HIZKUNTZA POLITIKAREN  
LEHENDAKARIORDEAREN ESKUTIK

1545ean, Bernat Etxepare idazle Baxenabartarrak, *Linguae Vasconum Primitiae* liburua idatzi eta sustut inprimarazi zuen, euskara hedatu eta aro modernora sarrarazteko xede argiarekin. Gure hizkuntzaren aldeko ekimen ororen hazia landatu zuen orduan.

Euskal Elkargoa kate horretan aitzina doa hizkuntza politika hau zehaztuz eta obratuz, euskara Ipar Euskal Herriko plaza guzietara jalgi dadin.

Izan ere, 2017ko otsailaren 4ko deliberoan euskararen aldeko hizkuntza politika eskumena hartuz, Euskal Elkargoak, herri blokeko eskumenetan oinarritu euskararen aldeko hizkuntza politika zehazteko eta obratzeko engaiamendua hartu zuen.

Hala, dokumentu honek, Euskal Hirigune Elkargoaren euskararen aldeko hizkuntza politikaren oinarriak zehazten ditu, elkargoko hautetsiek hizkuntza eragileekin elkar aditzean prestatuak.

Herri blokearen eskumenetan esku hartuz, Euskal Hirigune Elkargoa euskal hiztun osoak agertzeko baitezpadakoak diren baldintzak sortzera bermatuko da:

- Eskaintza elebiduna antolatuko du, Elkargoak berak, herriek eta beren elkargoek proposatu biztanleendako zerbitzuetan, herritarrek hurbileko eremuan eta egunero koan euskara erabili eta transmititu ahal izan dezaten, hala nahi ukanez gero.

- Lurraldeko biztanleei zuzendu informazio eta sentsibilizazio ekintza jarraikia eramanen du aldi berean, zerbitzu horien baliatzera bultzatzeko, eta, oro har, bizitza eremu bakoitzean euskararen aldeko jarrera eta dinamikak bultzatzeko.

Herri blokeko eragile guziak beren ardurak harrarazten laguntzeak eta aldi berean biztanleen aktibatzeak, bizitza eremuetako ekimenak biderkatzeko bidea eman behar luke. Horrek euskararen aldeko hizkuntza politikaren obratze erritmoa indartuko du.

Dokumentu honek, euskararen aldeko hizkuntza politika mailan, Euskal Hirigune Elkargoaren esku hartzearen erreferentziazko koadroa osatzen du. Estrategia, helburuak, eskua hartze eremua eta orientabideak finkatzen ditu.

Honen obratzea, urtetik urtera eginen da, lan egitarau batzuen barnean neurri zehatzak xedatuz. Honen jarraipen eta ebaluazio iraunkorra eramanen da ere, finkatu helburuei begira hizkuntza politika honen eragin kortasuna neurtu ahal izateko.

Azkenik, hizkuntza politikaren obratzearekin batera, aurtendanik, hizkuntza esperimenterako proiektu baten zehazteko lana abiatuko da. Gaur egun, euskararen aldeko politika publikoak ezagutzen dituen traba juridikoei, erantzun bat ekar diezaike proiektu honek, euskararen aldeko politika publikoaren egituratze bidean urrats berri bat emanez.

# ÉLÉMENTS DE CONTEXTE

## LA STRUCTURATION D'UNE POLITIQUE PUBLIQUE EN FAVEUR DE LA LANGUE BASQUE

*La langue basque est une langue ancienne, parlée par les habitants d'un périmètre couvrant la Communauté Autonome d'Euskadi, la Communauté Forale de Navarre et la Communauté d'Agglomération Pays Basque. Elle constitue l'ADN du territoire et contribue à sa richesse, sa singularité et son attractivité.*

### 1/ La mobilisation de la société civile

Les dernières décennies voient la langue basque décliner rapidement sur le périmètre de la Communauté Pays Basque, du fait de la rupture de la transmission familiale.

A partir des années 1960, le tissu associatif (Euskaltzaindia, AEK, Seaska, les médias bascophones, Uda Leku, les associations de parents d'élèves, Ikas, etc.) se mobilise dans l'objectif de sauver la langue basque, en créant pour cela les dispositifs les plus structurants. Puis au cours des années 1990-2000, les pouvoirs publics se responsabilisent progressivement.

### 2/ Les fondements de la politique publique en faveur de la langue basque

En 2004, les pouvoirs publics créent l'Office Public de la Langue Basque (OPLB) chargé de définir et mettre en œuvre une politique publique dédiée. En 2006, par le vote du Projet de Politique Linguistique, les membres de l'OPLB – l'Etat, la Région, le Département, le Syndicat Intercommunal pour le Soutien à la Culture Basque et le Conseil des élus du Pays Basque – s'engagent à sauver et revitaliser la langue basque et posent les bases de la politique publique:

- Ils fixent l'objectif de relancer la production de locuteurs complets en priorisant les jeunes générations.
- Pour ce faire, ils affirment la nécessité d'intervenir simultanément sur la transmission de la langue basque, sur son usage et sur la motivation des locuteurs.

• Ils actent les principes de mise en œuvre de cette politique publique: le caractère volontariste de la démarche, le respect de la libre adhésion des acteurs et des locuteurs et le respect des cadres légaux et réglementaires en vigueur.

### 3/ Des politiques linguistiques de proximité

Les années suivantes, les collectivités locales s'engagent, en partenariat avec l'OPLB, à définir et mettre en œuvre une politique linguistique de niveau local à l'échelle des bassins de vie. Ainsi huit intercommunalités et trois villes de plus de 10 000 habitants ont créé en leur sein des services langue basque. Ces villes poursuivent leur action, tandis que les intercommunalités ont fusionné le 1er janvier 2017, en créant la Communauté d'Agglomération Pays Basque.



*Un locuteur complet est un locuteur qui éprouvera le désir de communiquer en basque, qui disposera de la compétence nécessaire pour le faire en toute circonstance et qui décidera de l'utiliser effectivement.*

Extrait du projet de politique linguistique de l'OPLB

# TESTUINGURUA

## EUSKARAREN ALDEKO POLITIKA PUBLIKOAREN EGITURATZEA

*Euskara antzinako hizkuntza da, Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea eta Euskal Hirigune Elkargoak biltzen dituen eremuko biztanleak ahoan darabiltena. Euskal Elkargoaren ADN da, honen aberastasunaren, berezitasunaren eta erakargarritasunaren parte da.*

### 1/ Jendarte zibilaren mobilizazioa

Azken hamarkadetan, Euskal Hirigune Elkargoaren lurraldean, gainbehera bortitza bizi izan du euskarak, familiako transmisioa eten baita.

1960ko hamarkadatik goiti, elkarteak (Euskaltzaindia, AEK, Seaska, euskal hedabideak, Uda Leku, buraso elkarteak, Ikas, etab.) euskara salbatzeko mobilizatu ziren, horretarako, dispositibo egituratzaileenak sortuz.

Eta, ondotik, 1990eko eta 2000ko hamarkadetan, botere publikoek, pixkanaka, zegokien ardura hartu zuten.

### 2/ Euskararen aldeko politika publikoaren oinarriak

2004an, botere publikoek zuzenbide publikoko tresna bat sortu zuten, Euskararen Erakunde Publikoa (EEP), euskararen aldeko politika publikoa definitzeko eta obratzeko eginkizunarekin. 2006an, Hizkuntza Politika Proiektua bozkatzearekin, EEPko kideek –Estatuak, Eskualdeak, Departamenduak eta Euskal Kulturaren Aldeko Herrien Arteko Sindikatak– euskara salbatzeko eta biziberritzeko engaiamendua hartu zuten eta euskararen aldeko politika publikoaren oinarriak ezarri zituzten:

- Hiztun osoak sortzeko dinamika berrabiaraztea, lehentasuna emanez belaunaldi gazteei.
- Horretarako, aldi berean, hizkuntzaren transmisioa, erabilpena eta hiztunen motibazioa landu behar direla azpimarratu zuten.
- Politika publiko horren obratzeko printzipio nagusiak finkatu zituzten ere: desmartxa bultzatzailea, eragileen eta hiztunen hautu askearen errespetuan eta indarrean dauden lege eta araudien errespetuan.

### 3/ Hurbileko hizkuntza politikak

Ondoko urteetan, tokiko erakundeak, EEPekin partaidetzan, tokiko hizkuntza politika zehaztera eta obratzera engaiatu ziren, bizitza eremuka. Hala, zortzi herri elkargok eta 10 000 biztanle baino gehiagoko hiru hirik beren egituren barnean euskara zerbitzuak sortu zituzten. Egungo egunean, hiriek aitzina segitzen dute; elkargoek, aldiz, 2017ko urtarilaren 1ean bat egin zuten, Euskal Hirigune Elkargoa osatzeko.



*Hiztun osoa euskaraz komunikatzeko gogoia, edozein egoeratan euskaraz aritzeko trebetasuna eta euskara benetan erabiltzea erabakiko duen pertsona da.*

EEPren hizkuntza politika proiektuaren zati bat

## LA SITUATION SOCIOLINGUISTIQUE DE LA LANGUE BASQUE <sup>(1)</sup>

### → Des éléments porteurs d'espoir

Les résultats de la VIème enquête sociolinguistique montrent que le déclin de la langue n'est pas irréversible. Pour la première fois, en valeur absolue, le nombre des bascophones (51 000 personnes) ne diminue pas. La reprise de la langue par l'école chez les jeunes générations se poursuit: 14% de bascophones chez les 25-34 ans et 18% chez les 16-24 ans. Cette tendance devrait se confirmer dans les années à venir. En effet, selon les données communiquées par l'OPLB, à la rentrée 2017, 39,4% des élèves du 1<sup>er</sup> degré toutes filières confondues, suit un enseignement en langue basque et ce pourcentage est de 46,2% en maternelle.

L'adhésion sociale est forte puisque 93% des sondés envisagent pour l'avenir un territoire plurilingue.

### → Une situation fragile

La part des bascophones continue de baisser. Aujourd'hui, 20 % des habitants sont bascophones, soit une baisse de 6 points en dix ans. 49 % d'entre eux a plus de 50 ans et le flux de nouveaux arrivants est continu. Sur un territoire où la population augmente du fait d'un solde migratoire positif, la reprise chez les jeunes ne compense pas encore la disparition des locuteurs vieillissants et les arrivées de populations extérieures non bascophones.

### → L'enjeu de la qualité de la langue

D'un point de vue qualitatif, il apparaît que les locuteurs bascophones ont de moins en moins de facilité à parler en basque, phénomène qui s'accroît chez les jeunes générations.

Cela est en partie lié à la rupture de la transmission familiale durant des décennies. Aujourd'hui, une majorité de jeunes bascophones apprend le basque uniquement à l'école. Ainsi, le temps d'exposition à la langue est limité.

Les modalités d'usage de la langue basque expliquent aussi ce phénomène. L'usage d'une langue permet de consolider son apprentissage, de même que la maîtrise insuffisante d'une langue empêche son utilisation. Or les jeunes bascophones utilisent moins régulièrement le basque que leurs aînés.

Enfin, de manière générale, les bascophones utilisent le basque dans le cadre familial ou dans le cercle d'amis et le français dans l'espace public.

### → La revitalisation en perspective

Ces éléments démontrent que pour entrer véritablement dans une dynamique de revitalisation, il est nécessaire de renforcer le rythme de transmission de la langue basque et d'élargir les dynamiques d'usage en particulier dans l'espace public.

“

**93 %**

*des sondés envisagent un territoire plurilingue*

**46,2 %**

*des enfants en maternelle suivent un enseignement en langue basque*

**20 %**

*des habitants sont bascophones, soit 51 000 personnes*

**- 6 %**

*de bascophones en 10 ans*

**49 %**

*des bascophones ont plus de 50 ans*

**+ 15 032**

*solde migratoire (entre 2009/2014) <sup>(2)</sup>*

## EUSKARAREN EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA <sup>(1)</sup>

“

**% 93**

*geroan lurralde eleanitza planteatzen duten herritarrak*

**% 46,2**

*ama eskolan euskaraz ikasten duten haurrak*

**% 20**

*euskaldunak diren herritarrak, hots, 51 000 pertsona*

**% - 6**

*euskaldun gutiago 10 urtez*

**% 49**

*50 urtez goitiko euskaldunak*

**+ 15 032**

*migrazio balantza (2009 eta 2014 artean) <sup>(2)</sup>*

### → Itxaropen seinala batzuk

VI. inkesta soziolinguistikoaren emaitzen arabera, euskararen gainbeherak badu itzulbiderik. Lehen aldikotz, balio absolutuan, euskaldunen kopurua (51 000 hiztun) ez da ttipitu. Gazteek eskolaren bitartez euskara berreskuratzen segitzen dute: 25-34 urtekoen %14 eta 16-24 urtekoen %18 euskaldunak dira. Eta hurrengo urteetan, joera hori baieztatu behar litzateke. Izan ere, EEPk komunikatu datuen arabera, 2017ko eskola sartzean, sail guztiak nahasirik lehen mailako ikasleen %39,4 eta ama eskolako ikasleen %46,2 euskarazko irakaskuntzan sartua da.

Gizartearen jarrera arras baikorra da: galdekatutako jendeen %93k lurralde eleanitza planteatzen dute gerorako.

### → Egoera hauskorra

Hala ere, lurraldeko euskaldunen proportzioak beheiti segitzen du. Egun, biztanleen %20 euskaldunak dira. 10 urtez, euskaldunen parte 6 puntuz ttipitu da. Euskaldunen %49k 50 urte baino gehiago dute eta euskaldunak ez diren biztanle berriak etengabe lurraldera iristen dira.

Izan ere, gure lurraldean, biztanle kopurua migrazio balantza positiboaren eraginez emendatzen denez, gazteen euskararen berreskuratzea ez da oraino aski azkarra adinekoren galtzearen eta kanpotik jin biztanleen etorrera orekatzeko.

### → Hizkuntzaren kalitatearen erronka

Horrez gain, kalitateari dagokionez, inkestak adierazi du euskaldunek gero eta erraztasun gutiago dutela euskara baliatzeko, bereziki gazteek. Egoera hori familia transmisioaren hausturak zenbait hamarkadaz iraun izanak azaltzen du, partez.

Izan ere, egun, euskaldun gazte gehienek euskara eskolan baizik ez dute ikasten, eta euskara entzuten duten denbora tarte mugatua da.

Baina horrek badu ikustekorik, baita ere, euskararen erabilpen moldeekin.

Alabaina, badakigu hizkuntza baten erabilpenak ikaskuntza sendotzen duela, eta, halaber, hizkuntza bat aski ongi ez dakienak ezin duela baliatu. Bada, euskaldun gazteek ez dute zaharragoek bezain erregulariki euskara erabiltzen. Eta oro har, euskaldunek euskara baliatzen dute familian eta lagunekin, baina eremu publikoan, gehien-gehienek frantsesa baizik ez dute baliatzen.

### → Biziberritzearen mentura

Datu hauek frogatzen dute, biziberritze dinamikan egiazki sartzeko, beharrezkoa dela, batetik, euskararen transmisio erritmoa azkartzea, eta, bestetik, erabilpen dinamikak zabaltzea, bereziki eremu publikoan.

<sup>(1)</sup> Sources : Enquête sociolinguistique 2016, Eusko Jaurlaritza, Gouvernement de Navarre, OPLB, Chiffres enseignement OPLB

<sup>(2)</sup> Sources : INSEE - RP 2013 et 2014

<sup>(1)</sup> Iturriak: 2016ko inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, EEP, Irakaskuntza zenbakiak EEP

<sup>(2)</sup> Iturriak: INSEE - RP 2013 eta 2014

## LE CADRE LÉGAL DE LA POLITIQUE LINGUISTIQUE

### 1/ La promotion des langues régionales : une compétence partagée

Depuis l'adoption de l'article 75-1 de la Constitution, les langues régionales appartiennent au patrimoine constitutionnel de la France. Cette constitutionnalisation des langues régionales en général et de la langue basque en particulier appelle une action résolue des pouvoirs publics.

L'article 104 de la loi NOTRe (L. 1111-4 du Code Général des Collectivités Territoriales) officialise la compétence « promotion des langues régionales » et précise qu'elle est partagée entre les communes, les départements, les régions et les collectivités à statut particulier.

Sur notre territoire, les institutions publiques peuvent engager une action à deux niveaux :

- en activant leur propre politique linguistique par l'intégration de la langue basque dans les politiques sectorielles. Transversale par nature, la politique linguistique et les actions qui en découlent sont financées dans le cadre de budgets existants affectés aux différentes politiques sectorielles ;
- par la mise en œuvre d'une stratégie et de dispositifs partagés au sein de l'OPLB. La compétence politique linguistique étant partagée, cela permet d'assurer la cohérence et l'efficacité des initiatives.



*La Communauté Pays Basque s'engage à définir et mettre en œuvre une politique linguistique qui portera sur les compétences du bloc communal*

### 2/ La compétence de la Communauté Pays Basque

Peu après sa création, par délibération en date du 4 février 2017, la Communauté d'Agglomération Pays Basque prend une compétence en matière de politique linguistique en faveur de la langue basque. Elle fixe ainsi deux niveaux d'interventions :

- elle s'engage d'une part à définir et mettre en œuvre sa propre politique linguistique qui portera sur les compétences du bloc communal constitué des communes et de leurs groupements (syndicats et agglomération). Elle aura ainsi pour mission d'intégrer la langue basque dans son fonctionnement et dans les politiques qu'elle met en œuvre. Elle devra également accompagner les communes et leurs groupements dans l'intégration de la langue basque dans leur fonctionnement et au sein des politiques qu'elles mettent en œuvre. La Communauté Pays Basque mènera également des actions de sensibilisation en direction de la population et développera la coopération transfrontalière.
- elle s'engage d'autre part à participer, au sein de l'OPLB, à la définition et à la mise en œuvre de la politique linguistique partagée, aux côtés de l'Etat, la Région et le Département.

### 3/ La promotion de la langue basque par les communes

La prise de compétence de la Communauté d'Agglomération en matière de politique linguistique ne dépossède pas les communes de la possibilité de promouvoir la langue basque sur leur domaine de compétence. En effet, la politique linguistique est une politique transversale et partagée qui s'exécute par son intégration dans les politiques sectorielles de chaque institution. Dès lors, les communes pourront intervenir sur les politiques sectorielles dont elles ont la charge. Pour ce faire, elles pourront bénéficier de l'appui de la Communauté d'Agglomération Pays Basque.

## HIZKUNTZA POLITIKAREN LEGEZKO KOADROA

### 1/ Eskualdeko hizkuntzen sustapena: eskumen partekatua

Konstituzioaren 75-1 artikulua onartu zenetik, eskualdeko hizkuntzak Frantziako konstituzio-ondarearen parte dira. Eskualdeko hizkuntzak oro har, eta bereziki euskara konstituzioan sartzeak, botere publikoei funtsez aritzea eskatzen die.

Horrez gain, NOTRe legearen 104. artikulua (Lurralde Elkargoen Kode Orokorreko L. 1111-4) « eskualdeko hizkuntzen sustapena » eskumena ofizial egin du, herri, departamendu, eskualde eta araudi bereziko elkargoen arteko eskumen partekatua dela zehaztuz.

Gure lurraldean, erakunde publikoek bi mailako ekintza abia dezakete:

- beren hizkuntza politika propioa aktibatuz: euskara erakundearen eskumen eta politika guzietan sartuko da. Izan ere, hizkuntza politika zeharkako politika da, eta dagozkion ekintzak sektorekako politika bakoitzaren barnean zehazten diren aitzinkontuen bitartez diruztatuko dira;
- EEPren barnean estrategia eta dispositibo partekatua plantan emanez. Hizkuntza politikaren eskumen partekatua denez ekimenen koherentzia eta eraginkortasuna bermatzea beharrezkoa da.



*Euskal Elkargoa, herri blokearen eskumenetan oinarrituko den hizkuntza politika propioa zehaztera eta obratzera engaiatzen da*

### 2/ Euskal Hirigune Elkargoaren eskumena

Sortu orduko, Euskal Hirigune Elkargoak euskararen aldeko hizkuntza politikaren eskumena hartu zuen, 2017ko otsailaren 4ko deliberoaren bidez. Karia horretara, bi jardura maila zehaztu zituen:


- batetik, herriez eta herrien arteko elkargoez (sindikatu eta/edo herri-hiri elkargoak) osatu herri blokearen eskumenetan oinarrituko den hizkuntza politika propioa zehaztera eta obratzera engaiatzen da. Hala, bere funtzionamenduan eta obratzen dituen politiketan euskara txertatu beharko du, eta herriak eta herrien arteko elkargoak beren funtzionamenduan eta obratzen dituzten politiketan euskara txertatzen lagundu beharko ditu. Euskal Hirigune Elkargoak, bestalde, biztanleenganako sentsibilizazio ekintzak antolatuko ditu eta herri blokearen eskumenekin lotuz mugaz gaindiko harremanak garatuko ditu.
- bestetik, EEPren barnean, hizkuntza politika partekatua definitzeko eta obratzean parte hartzeri engaiatzen da, Estatuarekin, Eskualdearekin eta Departamenduarekin batean.

### 3/ EUSKARAREN SUSTAPENA HERRIEN ESKUTIK

Euskal Hirigune Elkargoak eskumen hau hartu izanak ez du kentzen herriek badutela oraino beren eskumen eremuetan hizkuntza politika obratzeko aukera. Izan ere, hizkuntza politika zeharkako politika partekatua da, instituzio bakoitzaren sektorekako politiketan txertatuz obratzen dena. Ondorioz herriei soilik dagokie euskararen integratzea beren esku diren politiketan. Euskal Hirigune Elkargoak lan horretan laguntzen ahalko ditu.

# LES PRINCIPES DU PROJET

La Communauté d'Agglomération Pays Basque souhaite définir et mettre en œuvre une politique linguistique ambitieuse dans le respect de la libre adhésion et du cadre légal. Elle vise à réunir les **conditions obligatoires à l'émergence de locuteurs complets**: l'adhésion de la population, les possibilités de transmission et d'utilisation de la langue. La compétence prise le 4 février 2017 par la Communauté d'Agglomération Pays Basque précise que **cette politique linguistique portera sur les compétences du bloc communal**. Dans l'organisation territoriale de l'action publique, les communes et leurs groupements constituent le maillon de proximité pour les habitants. Les services à la population qu'ils développent couvrent un large éventail d'activités essentielles à la vie des personnes et des familles. Ils impactent leur quotidien et leurs projets de vie. Ces services, qui s'appuient très largement sur la relation à l'utilisateur, constituent donc des opportunités d'usage et/ou de transmission de la langue basque.



OBJECTIF 1

## Structurer une offre bilingue dans les services à la population

L'objectif de la politique linguistique de la Communauté d'Agglomération Pays Basque sera de structurer une offre bilingue dans les services à la population proposés par la CAPB, les communes et les autres acteurs du bloc communal, sur l'ensemble des bassins de vie, afin que les habitants qui le souhaitent puissent utiliser et transmettre la langue basque au quotidien.

OBJECTIF 2


## Informier et sensibiliser les citoyens

La Communauté d'Agglomération Pays Basque mènera une action d'information et de sensibilisation permanente en direction des habitants du territoire, pour les amener à utiliser ces services, encourager de manière générale l'adhésion de la population et le développement des dynamiques bascophones à l'échelle des bassins de vie.

# PROIEKTUAREN PRINTZIPIOAK

Euskal Hirigune Elkargoak anbizio handiko hizkuntza politika definitu eta obratu nahi du, bakoitzaren hautu librea bermatuz eta lege oinarriaren errespetuan. **Hiztun osoak sortzeko beharrezkoak diren baldintzak antolatu nahi ditu**: gizartearen atxikimendua, euskara transmititzeko eta erabiltzeko aukerak.

Euskal Hirigune Elkargoak 2017ko otsailaren 4an hartu eskumenak zehazten du bere **hizkuntza politika herri blokearen eskumenetan oinarrituko dela**. Ekintza publikoaren lurraldeko antolaketan, herriak eta herrien arteko elkargoak biztanleendako hurbileko solaskideak dira. Garatzen dituzten biztanleendako zerbitzuetan, jendeen eta familien biziarendako funtsezkoak diren hainbat jarduera daramatzate. Beren egunerokotasunari eta bizi proiektuei eragiten diete. Ondorioz, nagusiki erabiltzailearekiko harremanean oinarritzen diren zerbitzu horiek euskararen erabiltzeko eta/edo transmititzeko paradak izan daitezke ere.



1. HELBURUA

## Biztanleendako zerbitzuetan eskaintza elebiduna egituratzea

Euskal Hirigune Elkargoaren hizkuntza politikaren helburua izanen da, elkargoak berak, herriek eta herri blokeko beste eragileek proposatu biztanleendako zerbitzuetan eskaintza elebiduna egituratzea, bizitza eremu guzietan, nahi duten biztanleek euskara erabili eta transmititu ahal izan dezaten, egunerokoan, hurbileko testuinguruan.

2. HELBURUA

## Biztanleen informatzea eta sentsibilizatzea

Aldi berean, Euskal Hirigune Elkargoak lurraldeko biztanleei zuzendu informazio eta sentsibilizazio ekintza jarraikia eramanen du, herritarrak zerbitzu horien baliatzera bultzatzeko eta, oro har, euskararen aldeko jarrera eta dinamikak bultzatzeko, bizitza eremu bakoitzean.





## MISSION 1

### Accompagnement des acteurs du bloc communal

La structuration et le développement de cette offre bilingue passe par une responsabilisation de l'ensemble des acteurs du bloc communal. Ils devront progressivement adapter leurs organisations, se doter des ressources nécessaires et mobiliser leurs budgets, afin de pouvoir à terme fonctionner de manière bilingue et autonome.

Pour cela, la Communauté Pays Basque devra informer, convaincre et accompagner les communes, les syndicats de communes et les établissements qu'ils gèrent et les organismes dispensant une mission de service public de niveau communal et/ou intercommunal.

Elle devra également proposer en interne, un accompagnement à ses services et aux établissements qu'elle gère afin de les aider à trouver les solutions adaptées pour la mise en place du bilinguisme. Ceci se traduira par la définition de schémas d'insertion, qui à partir des orientations du document de politique linguistique, fixeront des objectifs précis, les délais et les moyens à mettre en œuvre pour l'intégration progressive de la langue basque. Pour ce faire, un référent politique linguistique sera nommé au sein de chaque direction et/ou service. Les actions qui en découleront seront financées dans le cadre des budgets afférents à la direction concernée.

## MISSION 2

### Animation territoriale de proximité

La Communauté Pays basque déclinera la politique linguistique à l'échelle des bassins de vie pour :

- s'assurer de la complétude et de la cohérence de l'offre bilingue au sein des services à la population existants,
- mettre en œuvre une action d'information et de sensibilisation permanente en direction de la société civile,
- travailler à la mise en réseau des acteurs de l'action publique et de la société civile.

**La stratégie de responsabilisation de l'ensemble des acteurs du bloc communal combinée à la mobilisation de la population, devrait à terme générer une multiplication des initiatives à l'échelle des bassins de vie. Cela contribuera à l'accélération du rythme de mise en œuvre de la politique linguistique en faveur de la langue basque.**

## 1. EGINKIZUNA

### Herri blokeko eragileak laguntzea

Biztanleendako zerbitzuetan eskaintza elebiduna egituratzeko eta garatzeko, herri blokeko eragileek beren erantzukizunak hartu behar dituzte, pixkanaka, beren antolaketak egokituz, behar diren baliabideak berenganatuz eta aitzinkontuak mobilizatuz, ororen buru elebitan eta beren kabuz aritu ahal izateko.

Horretarako, Euskal Hirigune Elkargoak informatu, konbentzitu eta lagundu beharko ditu herriak, herri sindikatuak, kudeatzen dituzten egiturak, eta herri edo herriarte mailako zerbitzu publiko bat obratzen duten eragileak.

Euskal Hirigune elkargoaren baitako zerbitzuak eta kudeatzen dituzten egiturak lagunduko dira ere, elebitasuna plantan jartzeko aterabide egokiak atzeman ditzaten. Gisa horretan, txertatze eskemak definituko dira, hizkuntza politika dokumentuko orientabideetatik abiatuz, helburu zehatzak, epeak eta baliabideak finkatuko dituztenak. Horretarako, zuzendaritza edo zerbitzu bakoitzean euskara erreferente bat izendatuko da. Hortik aterako diren ekintzak dagozkien zuzendaritzaren aitzinkontuekin finantzatzeko dira.

## 2. EGINKIZUNA

### Hurbileko lurralde animazioa

Euskal Hirigune Elkargoak hizkuntza politika biritza eremuen heinean deklinatuko du:

- herritarrenganako zerbitzuetan eskaintza elebidunaren koherentzia eta osotasuna segurtatzeko,
- herritarrei etengabeko informazio eta sentsibilizazio ekintzak proposatzeko,
- eragile publikoen eta gizarte eragileen arteko saretzea lantzeko.

**Herri blokeko eragile guziak beren ardurak harrarazten laguntzeko estrategiak eta aldi berean biztanleen aktibatzeak, biritza eremuetako ekimenak biderkatzeko bidea eman behar lukete. Horrek euskararen aldeko hizkuntza politikaren obratze erritmoa lastertzen lagunduko du.**

# PÉRIMÈTRE D'INTERVENTION

21 domaines d'intervention relevant des compétences du bloc communal ont été repérés comme stratégiques pour la mise en œuvre de la politique linguistique de la Communauté d'Agglomération.

Pour chacun de ces domaines, des fiches d'orientations ont été définies. Chaque fiche fixe: LES ENJEUX • L'OBJECTIF • LES ORIENTATIONS

Ces fiches d'orientation sont réparties en trois groupes, qui constituent un guide de lecture du document:

## LA TRANSMISSION

Ce groupe comprend 4 domaines d'intervention qui peuvent constituer des vecteurs de transmission de la langue basque:

- 1• Enseignement
- 2• Petite enfance
- 3• Loisirs
- 4• Apprentissage adultes

## L'USAGE

Ce groupe comprend 12 domaines d'intervention pouvant contribuer au développement des dynamiques d'usage de la langue basque:

- 5• Culture
- 6• Mobilité
- 7• Services à la personne
- 8• Eau
- 9• Déchets
- 10• Aménagement
- 11• Transition énergétique et écologique
- 12• Développement économique
- 13• Tourisme
- 14• Enseignement supérieur
- 15• Communes, syndicats et établissements
- 16• Institutions intercommunales

## FONCTIONS SUPPORTS ET TRANSVERSES

Ce groupe comprend 5 fiches présentant les différentes fonctions supports et transverses nécessaires à l'intervention dans chacun des domaines repérés.

- 17• Formation professionnelle
- 18• Traduction
- 19• Stratégie d'information
- 20• Dispositif d'évaluation
- 21• Transfrontalier

# ESKU HARTZE EREMUA

Herri blokearen eskumenetan sartzen diren eta Euskal Hirigune Elkargoaren hizkuntza politikarentzat estrategikoak diren 21 esku hartze eremu begiztatu dira.

Esku hartze eremu bakoitzarentzat orientabide fitxak osatu dira. Fitxa bakoitzean honakoa zehaztu da: ERRONKAK • HELBURUAK • ORIENTABIDEAK

Orientabide fitxa horiek dokumentuaren irakurketa gida osatzen dute. Hiru multzotan banatuak dira:

## TRANSMISIOA

Multzo horretan euskararen transmisioan eragin dezaketzen 4 esku hartze eremu daude.

- 1• Irakaskuntza
- 2• Lehen haurtzaroa
- 3• Aisialdiak
- 4• Helduen norbanako euskalduntzea

## ERABILPENA


Multzo honetan euskararen erabilpenaren garapenean eragin dezaketzen 12 esku hartze eremu daude.

- 5• Kultura
- 6• Mugikortasuna
- 7• Jendeenganako zerbitzuak
- 8• Ura
- 9• Hondakinak
- 10• Antolamendua
- 11• Trantsizio energetikoa eta ekologikoa
- 12• Garapen ekonomikoa
- 13• Turismoa
- 14• Goi mailako irakaskuntza
- 15• Herriak eta sindikatuak
- 16• Herriarteko erakundea

## SUSTENGU ETA ZEHARKAKO FUNTZIOAK

Multzo honek 5 sostengu eta zeharkako funtzio barne hartzen ditu, gainean aipatu eremuetan aritzeko beharrezkoak direnak.

- 17• Formakuntza profesionala
- 18• Itzulpengintza
- 19• Informazio eta sentsibilizazio estrategia
- 20• Ebaluaketa dispositiboa
- 21• Mugaz gaindiko lankidetzak



# ENSEIGNEMENT

L'enseignement constitue aujourd'hui le principal vecteur de transmission de la langue aux jeunes générations. Le développement et la structuration de l'enseignement en langue basque relevant essentiellement de la compétence de l'Education Nationale, cette question est traitée au sein de l'OPLB. Pour autant, la commune est seule compétente en matière d'aide aux écoles primaires. Pour les écoles publiques, elle est propriétaire des locaux et en assure la construction, la reconstruction, l'extension et les travaux d'entrevue. Elle gère ainsi les crédits d'équipement, de fonctionnement et d'entretien de ces écoles. Elle est aussi en charge de l'organisation de la restauration ainsi que du temps périscolaire. Enfin, elle peut également aider les écoles privées sous contrat d'association par le versement d'un forfait communal.



## OBJECTIF :

### ACCOMPAGNER LES COMMUNES DANS L'INTÉGRATION DE LA LANGUE BASQUE SUR LEURS DOMAINES DE COMPÉTENCES

- Participer via l'Assemblée générale de l'OPLB, au dispositif de concertation entre l'Education Nationale et les collectivités, visant le développement de l'offre d'enseignement en langue basque et sa structuration qualitative
- Inciter les communes à promouvoir l'offre d'enseignement bilingue dans le cadre des procédures d'inscription dans les écoles publiques
- Accompagner les communes et les établissements publics du 1<sup>er</sup> degré à l'intégration de la langue basque dans le fonctionnement, la signalétique et la communication des écoles publiques bilingues
  - ⇒ mettre en place une signalétique bilingue dans les écoles publiques proposant un enseignement bilingue
  - ⇒ accompagner les écoles publiques bilingues à insérer le bilinguisme dans les supports d'information et de communication
  - ⇒ veiller à ce que les ATSEM travaillant dans les établissements bilingues soient bascophones
  - ⇒ accompagner les communes à l'insertion du bilinguisme dans l'offre d'outils et d'usages numériques existants à destination des écoles publiques bilingues
- Mener une réflexion concernant les modalités d'accompagnement des communes et des établissements scolaires bascophones et bilingues pour l'organisation d'une offre en langue basque au sein des nouvelles activités périscolaires proposées dans le cadre de la réforme des rythmes scolaires
  - ⇒ tenir compte des décisions des communes et de la CAPB concernant le maintien de l'organisation des TAP
  - ⇒ évaluer les dispositifs d'accompagnement proposés à ce jour par la CAPB dans le cadre de sa politique linguistique
  - ⇒ redéfinir l'action de la CAPB en conséquence
- Proposer un appui technique aux communes pour insérer la langue basque dans les échanges et séjours scolaires linguistiques transfrontaliers qu'elles soutiennent
- Offrir un appui technique aux communes pour mieux mobiliser les dispositifs et les financements de droits communs dont elles disposent, notamment dans le cadre du financement des établissements scolaires privés sous contrat d'association proposant un enseignement en langue basque
  - ⇒ proposer aux communes qui le souhaitent un accompagnement afin de les aider à mieux mobiliser le forfait communal
- préciser les modalités de prise en charge de la formation à la langue basque pour les agents de la Communauté d'Agglomération
- préciser les modalités de financements des formations des agents des communes, des syndicats de communes et des salariés des organismes privés en charge d'une mission de service public communal et intercommunal
- lisser les modalités d'interventions financières face aux disparités géographiques

# FORMAKUNTZA PROFESIONALA

Formakuntza profesionala honela definitzen da: jende bati lanbide batean edo lan jarduera batean aritzeko behar dituen jakintzak eta trebetasunak lortzea ahalbidetzen dion ikasketa prozesua. Gure lurraldean, helduen norbanako euskalduntze zerbitzuarekin batean (AEKren gau eskolen sarea, adixkideak etab.), euskarazko formakuntza profesionalaren eskaintza ere badago, lan denboran iragaten dena: urte guziez, 220 langile inguru biltzen ditu. Azken urte hauetan, hainbat erakundek (Departamendua, Herriko Etxe eta Herri Elkargo batzuek) beren langileei formakuntza horiek segitzeko aukera eman diete. Zerbitzu hornitzaile bakarra AEK da. Hizkuntza politikaren baitan, Euskal Hirigune Elkargoaren eginkizunetako bat kudeatzen dituen biztanleenganako zerbitzuetan elebitasuna barneratzea da, eta herriak laguntzea gauza bera egin dezaten. Baina euskaldunen erdiak 50 urte baino gehiago dituen eta euskararen biziberritzea gazteengandik heldu den egoera soziolinguistikoa honetan, argi dago aktiboen (landun eta langabe) artean dagoela euskaldun gutien. Beraz, biztanleendako herrietako eta herriarteko zerbitzuetan elebitasuna garatzeko ekintzan, Euskal Hirigune Elkargoari beharrezkoa zaio lanbide heziketa baliatzea, jendeak laguntzeko bai euskara ikasten, bai lan arloan baliatzen.



## HELBURUA:

EUSKAL ELKARGOKO, HERRIETAKO ETA HERRI BLOKEKO BESTE EGITURETAKO LANGILEAK BULTZATZEA ETA LAGUNTZEA EUSKARA IKAS DEZATEN ETA EUSKARA LAN ARLOAN BALIA DEZATEN

### ○ Formakuntza profesionala indartzea ahalbidetuko duen esku hartze koadro publikoa zehaztea

- ➔ EEPekin lankidetzan aritzea euskara ikasteko formakuntza profesionala zuzenbide komuneko dispositiboek beren gain har dezaten
- ➔ CNFPTk euskara formakuntzak bere gain gehiago har ditzan lortzea:
- CNFPTrenganako desmarten ko-gidaritza, EEPekin, Hiriekin, Departamenduarekin eta Eskualdearekin
- CNFPTrekilako hitzarmenezko dispositiboan parte hartzea

➔ EEPekin elkar adituz lan egitea, OPCA egiturek formakuntzak sistematikoki eta antolaketa optimizatuan beren gain har ditzaten,

➔ Euskal Elkargoaren diruzko parte-hartze moldeak zehaztea

- hirigune elkargoko langileen euskara formakuntza bere gain hartzeko moldeak zehaztea
- herrietako, herri sindikatuarekin eta herriko ala herriarteko zerbitzu publikoko eginkizuna duten egitura pribatuarekin langileen formakuntzak diruztatze moldeak zehaztea
- ezberdintasun geografikoei buru egiteko, diruzko parte hartze moldeak leuntzea

○ **Encourager les agents communaux, intercommunaux et les salariés des organismes privés exerçant une mission de service public communal et intercommunal, qui le souhaitent, à suivre une formation professionnelle à la langue basque**

⇒ repérer les agents volontaires et occupant des postes stratégiques dans le cadre des schémas d'insertion de la Communauté Pays Basque, des contrats de progrès, des plans d'accompagnement des crèches etc.

⇒ proposer aux agents volontaires un positionnement linguistique

⇒ accompagner les agents volontaires et leurs responsables dans l'élaboration d'un projet de formation adapté au bon fonctionnement du service

⇒ construire le plan de financement

○ **Travailler en étroite collaboration avec l'organisme en charge de la formation pour définir une offre diversifiée et adaptée aux besoins des agents et des services** (ex. formations intensives, formations hebdomadaires, stages, formats innovants de formation, etc.)

○ **Mettre en place les outils nécessaires à la réussite de la formation**

⇒ suivi régulier et personnalisé de l'agent en formation

⇒ sensibilisation du service de la personne en formation (supérieur hiérarchique et autres membres du service)

⇒ valorisation de la formation (pendant l'entretien de fin d'année avec usage de fiches d'objectifs)

⇒ inciter l'agent à passer les examens de certification de niveau linguistique (B1, C1)

⇒ mesurer et évaluer les résultats de la formation, son impact, les changements produits

○ **Activer l'usage de la langue basque dans le cadre professionnel**

⇒ proposer des formations thématiques en langue basque en lien avec le métier (ex. formation de psychomotricité pour les salariés de crèches, formations portant sur les techniques de cirque pour les animateurs d'accueil de loisirs, etc.)

⇒ définir et proposer des outils d'accompagnement de la pratique de la langue dans le travail (type coaching, contrat d'objectifs, etc.)

⇒ organiser des lieux et des temps de rencontres informelles entre les agents en formation et avec les agents bascophones

○ **Permettre aux usagers d'identifier les agents bascophones volontaires et agents en formation**

○ **Communiquer de façon publique sur les formations mises en route afin de valoriser l'engagement de l'institution et l'effort des apprenant-e-s**



○ **Herrietako eta herriarteko langile nahiantak eta herriko edo herriarteko zerbitzu publikoko eginkizuna duten egitura pribatuetako langile nahiantak euskara ikasteko formakuntza profesionala hartzea bultzatzea**

⇒ euskara ikasi nahi duten eta lanpostu estrategikoak dituzten langile nahiantak identifikatzea, Euskal Elkargoaren txertatze eskemen, hobekuntza kontratuen, hartzaindegien laguntza planen eta abarren baitan.

⇒ langile nahiantei mailakatzeen egitea proposatzea

⇒ langile nahiantak eta beren arduradunak zerbitzuaren funtzionamenduari egokitutako formakuntza proiektu bat sortzen laguntzea

⇒ finantzamendu plana eraikitzea

○ **Formakuntzaz arduratzen den eragilearekin hurbileko lankidetzan aritzea, eskaintza anitza eta langileen eta zerbitzuen beharrei egokitua definitzeko** (adb. formakuntza intentsiboak, asteroko formakuntzak, ikastaroak, formakuntza formatu berritzaileak, etab.)



○ **Formakuntza lortzeko behar diren tresnak plantan ematea**

⇒ formakuntzan dagoen langilearen jarraipen erregularra eta pertsonalizatua egitea

⇒ formakuntzan dagoen langilearen zerbitzua sentibilizatzea (gaineko lehen arduraduna eta zerbitzuko beste kideak)

⇒ formakuntzari balioa ematea (urte hondarreko elkarrizketan, helburu fitxak baliatuz)

⇒ langilea hizkuntza mailaren ziurtagiriak lortzeko azterketak pasatzera bultzatzea (B1, C1)

⇒ formakuntzaren emaitza, inpaktua eta eragindako aldaketa neurtzea

○ **Euskara lan arloan baliatzera bultzatzea**

⇒ lanbidearekin lotutako euskarazko gaikako formakuntzak proposatzea (adb. psikomotrizitate formakuntza hartzaindegietako langileentzat, zirkuko teknikei buruzko formakuntzak aisialdi guneetako animatzaileentzat, etab.)

⇒ euskara lanean baliatzeko laguntza tresnak sortzea eta proposatzea (coaching, helburu kontratua, etab.)

⇒ euskara ikasten ari direnen arteko eta langile euskaldunekilako topaketa informalak antolatzea

○ **Erabiltzaileei langile euskaldun nahiantak eta euskara ikasten ari direnak identifikatzeko bidea ematea**

○ **Formakuntzari buruz publikoki komunikatzea, bai instituzioaren aldetik eta bai formatzen diren ikasleen aldetik egin lana balorizatzeke**

# TRADUCTION

En matière de politique linguistique, la Communauté d'Agglomération Pays Basque a pour mission d'une part, de mettre en œuvre un bilinguisme équilibré dans les politiques qu'elle développe, et d'autre part d'accompagner les communes et leurs groupements pour qu'ils développent ce bilinguisme à leur tour. Pour ce faire, la traduction constitue, avec la formation professionnelle, l'un des deux principaux outils.



## OBJECTIF :

CRÉER UN SERVICE TRADUCTION POUR ACCOMPAGNER LES SERVICES DE LA COMMUNAUTÉ PAYS BASQUE ET LES COMMUNES, LEURS GROUPEMENTS ET LES ORGANISMES PRIVÉS EN CHARGE D'UNE MISSION DE SERVICE PUBLIC COMMUNAL OU INTERCOMMUNAL, DANS LA MISE EN PLACE DE SOLUTIONS PERMETTANT DE RÉPONDRE À LEURS BESOINS DE TRADUCTION.

### ○ Créer un service traduction-correction qui aura pour mission

- ➔ d'élaborer un « cahier des bonnes pratiques » du bilinguisme équilibré
- ➔ d'élaborer et de mettre en place une procédure fixant les modalités d'intervention du service traduction-correction auprès des services de la Communauté Pays Basque, en visant leur autonomisation progressive
- ➔ de fixer un schéma d'intervention du service traduction-correction auprès des communes, leurs groupements, et les organismes privés en charge d'une mission de service public communal ou intercommunal en visant leur autonomisation progressive
- ➔ de gérer un fonds de traduction plafonné et provisoire venant en appui des actions de sensibilisation en direction des opérateurs privés, en attendant que l'OPLB mette en place sa fonction d'accompagnement des opérateurs privés
- ➔ de réaliser les traductions, dans les modalités fixées par les règlements d'intervention
- ➔ de créer et de mettre en place des outils d'aide à la traduction: lexiques, logiciels, base de données, « livre de styles »
- ➔ créer et gérer une base de données de documents types prêts à l'emploi, en lien avec les outils de l'OPLB
- ➔ de proposer une fonction conseil relative aux problématiques de mise en page et de graphisme

### ○ Créer et gérer un fonds permettant de recourir aux traducteurs professionnels dans les modalités fixées par les procédures et cadres d'intervention définis au préalable

### ○ Développer au sein du service, les compétences propres à la traduction, notamment en matière de traduction simultanée, par la mise en place de formations

### ○ Structurer une fonction d'appui des communes et acteurs du bloc communal pour la fixation de la graphie des toponymes (cadastre, enquête orale...)

- ➔ définition concertée OPLB/CAPB/Euskaltzaindia des méthodologie et outils de collecte des éléments nécessaires (cadastre, enquête orale...)
- ➔ accompagnement technique des communes et acteurs du bloc communal à la collecte des éléments nécessaires à la fixation de la graphie et transmission à l'OPLB.

## OBSERVATIONS :

- ➔ veiller à prendre en compte la variante souletine dans les outils et actions mis en place
- ➔ le service traduction de la Communauté Pays Basque travaillera en étroite collaboration avec la fonction de validation linguistique de l'OPLB

# ITZULPENAK

Hizkuntza politikaren baitan, Euskal Hirigune Elkargoak eginkizun bikoitza du: batetik, garatzen dituen politiketan elebitasuna plantan ematea, eta, bestetik, herriak eta beren elkargoak laguntzea, haiek ere elebitasuna gara dezaten. Horretarako, itzulpena, formakuntza profesionalarekin batean, bi tresna nagusietako bat da.



## HELBURUA:

ITZULPEN ZERBITZU BAT SORTZEA, HERRI BLOKEKO INSTITUZIOAK ETA HERRIKO EDO HERRIARTEKO ZERBITZU PUBLIKOKO EGINKIZUNA DUTEN EGITURA PRIBATUAK BEREN ITZULPEN BEHARREI IHARDESTEKO ATERABIDEAK PLANTAN EMATEN LAGUNTZEKO

### ○ Itzulpen-zuzenketa zerbitzua sortzea, eginkizun hauekin:

- ➔ elebitasun orekatuaren "jokabide egokien kaiera" sortzea
- ➔ itzulpen-zuzenketa zerbitzua Euskal Elkargoko zerbitzuekin aritzeko moldeak finkatzeko prozedura sortzea eta plantan ematea, pixkanaka autonomo bilaka daitezen
- ➔ itzulpen-zuzenketa zerbitzuaren herriekiko, beren elkargoekiko eta herriko edo herriarteko zerbitzu publikoko eginkizuna duten egitura pribatuekiko jardura moldeak finkatzeko prozedura sortzea eta plantan ematea, pixkanaka autonomo bilaka daitezen
- ➔ itzulpen funts bat kudeatzea, mugatua eta behin-behinekoa, eragile pribatueganako sentsibilizazio ekintzak laguntzeko, EEPk eragile pribatuen laguntza funtzioa plantan eman artean
- ➔ itzulpenak egitea, esku hartze araudiek finkatu moldeen arabera
- ➔ itzulpena laguntzeko tresnak sortzea eta plantan ematea: hiztegiak, programak, datu baseak, estilo liburuak
- ➔ ereduzko dokumentuz osatu datu base bat sortzea eta kudeatzea, baliatzeko prest izateko gisan, EEPren tresnekin loturik
- ➔ maketatze eta grafismo problematikei buruzko aholkularitza funtzioa proposatzea

### ○ Itzultzaile profesionali dei egiteko funtsa sortzea eta kudeatzea, aitzinetik finkatu prozedura moldeen eta esku hartze koadroen arabera

### ○ Zerbitzuaren baitan, itzulpenari dagozkion gaitasunak garatzea, bereziki aldibereko interpretazioan, formakuntzak antolatuz

### ○ Leku-izenen idazkera zehazteko (kadastra, ahozko inkesta...) herriekiko eta herri multzoetako eragileekiko laguntza funtzioaren egituratzea

- ➔ EEP / Euskal Elkargoa / Euskaltzaindiak elkarren artean beharrezkoak diren elementuen (kadastra, ahozko inkesta...) biltzeko tresnen eta metodologiaren adostea eta zehaztea
- ➔ Idazkera zehazteko beharrezkoak diren elementuen biltzeko herriak eta herri multzoetako eragileak teknikoki laguntzea eta EEPri transmititzea.

## OHARRAK:

- ➔ xiberotarra kontuan hartzea plantan emanen diren tresna eta ekintzetan
- ➔ Euskal Hirigune Elkargoko itzulpen zerbitzua EEPko hizkuntza egiaztapen funtzioarekin hurbileko lankidetzan aritzea

# STRATÉGIE D'INFORMATION ET DE SENSIBILISATION

*L'objectif de la politique linguistique est de développer des dynamiques bascophones à l'échelle des bassins de vie, en insérant une offre bilingue dans les services à la population. Parallèlement à l'organisation de cette offre, il est nécessaire de mener une action d'information et de sensibilisation permanente en direction de la population afin d'encourager les usagers bascophones à s'en emparer, afin de maintenir également un climat et un environnement favorables à la langue basque, et de développer à l'échelle des bassins de vie des dynamiques bascophones réunissant la population, les commerçants, les associations, les pouvoirs publics etc.*



## OBJECTIF :

DÉFINIR ET METTRE EN ŒUVRE UNE STRATÉGIE AUDACIEUSE D'INFORMATION ET DE SENSIBILISATION AFIN D'ENCOURAGER LA POPULATION À ALLER VERS LA LANGUE BASQUE, À L'UTILISER DANS L'ESPACE PUBLIC

○ **Mener une action d'information et de sensibilisation permanente en direction de la population afin de lui permettre d'identifier l'offre en langue basque dans les services à la population, et de l'encourager à s'en emparer**

- ➔ informer et sensibiliser les parents sur l'offre existante en matière d'enseignement en langue basque
- ➔ informer et sensibiliser les parents sur l'offre d'accueil collectif des jeunes enfants disponible en langue basque
- ➔ informer et sensibiliser les parents sur l'offre de loisirs disponible en langue basque
- ➔ informer et sensibiliser la population adulte pour l'encourager à apprendre la langue basque

➔ informer et sensibiliser la population afin de lui permettre d'identifier et d'utiliser l'offre bilingue disponible dans les autres services à la population: transports, culture, eau, déchets, services à la personne, services des mairies, syndicats, pôles territoriaux, offices de tourisme, etc.

# INFORMAZIO ETA SENTSIBILIZAZIO ESTRATEGIA

*Hizkuntza politikaren helburua bizitza eremuetan dinamika euskaldunak garatzea da, biztanleendako zerbitzuetan eskaintza elebiduna barneratuz. Eskaintza horren antolaketarekin batean, biztanleenganako informazio eta sentsibilizazio ekintza iraunkorra ere beharrezkoa da, euskaldunak hizkuntza baliatzera bultzatzeko, euskararen aldeko giroa eta ingurumena atxikitzeko eta bizitza eremuetan biztanleak, merkatariak, elkarteak, botere publikoak, eta abar bilduko dituzten dinamika euskaldunak garatzeko*



## HELBURUA:

INFORMAZIO ETA SENTSIBILIZAZIO ESTRATEGIA AUSARTA ZEHAZTEA ETA OBRATZEA: BIZTANLEAK EUSKARARENGANA JOANARAZTEKO ETA EUSKARAREN ERABILPENA EREMU PUBLIKOAN BULTZATZEKO

○ **Biztanleenganako informazio eta sentsibilizazio ekintza iraunkorra antolatzea, euskarazko zerbitzuen eskaintza identifika eta berengana dezaten**

- ➔ Burasoak euskarazko irakaskuntzaren arloan dagoen eskaintzari buruz informatzea eta sentsibilizatzea
- ➔ Burasoak haur ttipien harreraren arloan euskaraz dagoen eskaintzari buruz informatzea eta sentsibilizatzea
- ➔ Burasoak aisialdiaren arloan euskaraz dagoen eskaintzari buruz informatzea eta sentsibilizatzea
- ➔ Biztanle helduak euskara ikastera bultzatzeko informatzea eta sentsibilizatzea

➔ Herritarrak informatzea eta sentsibilizatzea, zerbitzuetan dagoen euskarazko eskaintza identifika eta balia dezaten: garraioetan, kulturaren, uretan, hondakinetan, pertsonendako zerbitzuetan, herriko etxeetako zerbitzuetan, sindikatuetan, lurralde eremuetan, turismo bulegoetan, etab.

○ **Sensibiliser et inciter les opérateurs privés (commerçants, entreprises locales, associations) à utiliser la langue basque, dans l’affichage et la signalétique, la communication et le service rendu:**

➔ lancer des campagnes ponctuelles en direction des commerçants, entreprise, associations etc. par bassin de vie ou par secteur d’activité

➔ créer les outils nécessaires avec les professionnels qui en seront destinataires: documents types, fonds provisoire de traduction, formation de sensibilisation à la langue basque etc.

➔ collaborer pour ce faire avec les unions commerciales et autres acteurs fédérateurs du secteur

○ **Développer à l’échelle des bassins de vie des dynamiques d’usage de la langue basque reliant les acteurs publics, les opérateurs privés et les habitants**

➔ par l’organisation ou la co-organisation d’événements: Euskararen urtaroa, Euskaraldia, Euskarak 365 egun, soirées jeux en langue basque, Mintzaplaza, etc.

➔ par la mise en place de structures de concertation locales pérennes

○ **Développer des actions d’information et de sensibilisation en direction de la population et en particulier en direction des populations non bascophones et des nouveaux arrivants**

➔ concevoir et diffuser les packs de sensibilisation des jeunes parents, en lien avec l’OPLB et les villes disposant de services langue basque

➔ travailler avec les commune afin d’examiner les possibilités de créer et de diffuser des kits de bienvenue aux nouveaux arrivants

➔ concevoir et diffuser les petits glossaires de poche en lien avec l’OPLB et les villes disposant de services langue basque

➔ organiser des campagnes de valorisation et de motivation pour l’apprentissage du basque par les adultes

➔ etc.

○ **Eragile pribatuak (merkatariak, tokiko enpresak, elkarteak) sentsibilizatzea eta afixetan, seinale-tikan, komunikazioan eta eman zerbitzuetan euskara baliatzera bultzatzea:**

➔ merkatari, enpresa, elkarte eta abarrendako noiztenkako kanpainak antolatzea, bizitza eremuka edo jarduera arloka

➔ behar diren tresnak sortzea, baliatuko dituzten profesionalekin: ereduzko dokumentuak, behin-behineko itzulpen funtsa, euskarari buruzko sentsibilizazio formakuntza, etab.

➔ horretarako, merkatarien elkarteekin eta arloko beste eragile federatzaileekin lan egitea

○ **Bizitza eremuetan, eragile publikoak, eragile pribatuak eta biztanleak sartzeko, euskararen erabilpenerako dinamika garatzea**

➔ gertakariak antolatuz edo partaidetzan antolatuz: Euskararen urtaroa, Euskaraldia, Euskarak 365 egun, euskarazko joko gaualdiak, Mintzaplaza, etab.

➔ tokiko elkar aditze egitura iraunkorrak sortuz

**Biztanleenganako informazio eta sentsibilizazio ekintzak garatzea, bereziki euskaldunak ez diren eta lurraldera heldu berriak diren biztanleentzat**

➔ EEPekin eta euskara zerbitzuak dituzten herriekin lankidetzan, buraso berriendako sentsibilizazio packak sortzea eta hedatzea

➔ biztanle berriendako ongietorri kitak sortzeko eta hedatzeko paradari buruz herriekin gogoetatzea

➔ EEPekin eta euskara zerbitzua duten hiriekin lankidetzan, sakelako hiztegi ttipiak sortzea eta hedatzea

➔ helduek ere euskara ikasteko motibazio eta balorizazio kanpainak garatzea

➔ etab.



# DISPOSITIF D'ÉVALUATION

*Evaluer une politique publique, c'est juger de sa valeur au regard d'un ensemble de critères et d'objectifs fixés au départ, en vue d'améliorer sa performance et éclairer la prise de décision. Ainsi, pour évaluer l'impact de l'exécution de sa propre politique linguistique, effectuer un suivi permanent du processus de sa mise en œuvre et adapter les stratégies, la Communauté Pays Basque devra se doter d'un dispositif d'évaluation.*



## OBJECTIF :

CRÉER UN DISPOSITIF D'ÉVALUATION DE LA POLITIQUE LINGUISTIQUE AFIN D'ASSURER SON EFFICACITÉ AU REGARD DES OBJECTIFS FIXÉS ET DES MOYENS MOBILISÉS ET D'ADAPTER LES STRATÉGIES DE MISE EN ŒUVRE.

### ○ Réaliser le suivi et l'évaluation de la politique linguistique de la Communauté Pays Basque

- créer des indicateurs de suivi de la politique linguistique, par domaine d'intervention et par bassin de vie
- fixer les objectifs de mise en œuvre de la politique linguistique
- fixer des échéances tant pour les objectifs que pour les processus de mise en œuvre (planification dans le temps)
- au terme de l'échéance préalablement fixée, effectuer un suivi et une évaluation du processus de mise en œuvre de la politique linguistique portant notamment sur :
  - les 21 domaines de la politique linguistique ainsi que les nouveaux domaines qui pourront être ajoutés
  - l'évolution de la couverture territoriale de l'offre en langue basque dans les services à la population
  - le degré d'insertion du bilinguisme dans le fonctionnement des services communaux, intercommunaux, des établissements qu'ils gèrent et dans le fonctionnement des organismes privés en charge d'une mission de service public communal, intercommunal

### ○ Veille juridique

- suivi des évolutions du cadre légal et réglementaire relatif aux langues régionales
- fonction de conseil juridique quant aux possibilités d'usage de la langue dans les différents domaines de la politique linguistique en direction des services de la Communauté Pays Basque, des communes, des établissements qu'ils gèrent et des organismes privés en charge d'une mission de service public communal ou intercommunal

# EBALUAKETA DISPOSITIBOA

*Politika publiko bat ebaluatzea, hastapenean finkatu irizpide eta helburuekiko duen balioaren neurtzea da, eraginkorragoa bilakatzeko eta hurrengo erabakiak bideratzeko gisan. Hala, haren hizkuntza politikaren gauzatzearen eragina neurtzeko, obratze prozesuaren jarraipen iraunkorra egiteko eta estrategiak egokitzeko, Euskal Hirigune Elkargoak ebaluaketa dispositiboa beharko du.*



## HELBURUA:

HIZKUNTZA POLITIKAREN EBALUAKETA ETA JARRAIPIEN DISPOSITIBOA SORTZEA, FINKATU HELBURUEKIKO ERAGINKORRA DELA BERMATZEKO

### ○ Euskal Elkargoaren hizkuntza politikaren jarraipena eta ebaluaketa egitea

- hizkuntza politikaren jarraipen-adierazleak sortzea, jarduera arloka eta bizitza eremuka
- hizkuntza politikaren obratze helburuak finkatzea
- hizkuntza politikaren obratze helburuak eta prozesuak epemuga batekin finkatzea (denboran planifikatzea)
- hizkuntza politikaren obratze prozesuaren jarraipena eta ebaluaketa epealdi egitea, hauei buruz bereziki:
  - hizkuntza politikako 21 arloetan, eta ondotik gehi litezkeen arlo berrietan
  - euskarazko eskaintzaren lurraldeko estaldura neurtzeko eta herri blokeko eragileen funtzionamenduan eta zerbitzuetan elebiduntasuna zenbateraino barneratua den neurtzeko

### ○ Zaintza juridikoa:

- eskualdeko hizkuntzei buruzko lege eta araudien bilakaera segitzea
- hizkuntza politikaren arlo ezberdinetan euskara baliatzeko paradei buruzko aholkularitza juridikoa, Euskal Elkargoko, herrietako eta kudeatzen dituzten erakundeetako zerbitzuentzat eta herriko edo herriarteko zerbitzu publikoko eginkizuna duten egitura pribatuentzat

# TRANSFRONTALIER

Bénéficiant d'une situation géographique frontalière stratégique au niveau européen, la Communauté d'Agglomération Pays Basque a l'ambition de développer la coopération transfrontalière sur l'ensemble de ses politiques et notamment en matière de politique linguistique. Le territoire de la langue basque s'étend des deux côtés de la frontière. Que ce soit dans la Communauté Autonome d'Euskadi ou en Navarre, des politiques publiques en faveur de la langue basque sont mises en place, et le nombre de locuteurs bascophones est important et en constante augmentation.



## OBJECTIF :

DÉVELOPPER LES RELATIONS TRANSFRONTALIÈRES SUR TOUS LES DOMAINES D'INTERVENTION DE LA POLITIQUE LINGUISTIQUE DE LA COMMUNAUTÉ D'AGGLOMÉRATION PAYS BASQUE, ET FAIRE QUE LA LANGUE BASQUE DEVIENNE LA LANGUE DES RELATIONS TRANSFRONTALIÈRES

○ **Développer les relations transfrontalières avec le Gouvernement basque, la Communauté Autonome de Navarre et les Diputación Forales, les communes et les intercommunalités, sur tous les domaines d'intervention de la politique linguistique de la Communauté Pays Basque**

➔ poursuivre la mise en œuvre des actions visant à élargir les dynamiques d'usage de la langue basque

- pérenniser et développer le réseau Sareuska (Bortziriak, Sud Pays Basque et Bidasoa-Txingudi) autour de nouveaux projets: administration, commerce, tourisme, échanges entre jeunes, apprentissage des adultes, etc.

- étendre les partenariats avec les communes aux autres zones frontalières (Zugarramurdi, Urdazubi, Erronkari, Zaraitzu, Baztan, Luzaide etc.)

- participer aux projets couvrant tout le territoire de la langue basque: ex. Euskaraldia

➔ poursuivre et développer les échanges avec les acteurs de la politique linguistique et mutualiser les outils: formations liées à la politique linguistique (Udaltop, etc.), outils linguistiques.

➔ définir et mettre en œuvre de nouveaux champs de collaboration

- repérer des axes de collaboration prioritaires pour chacun des domaines de la politique linguistique de la Communauté Pays Basque,

- travailler à la mise en cohérence des cadres de coopération transfrontalière portant sur la politique linguistique, en collaboration avec le Gouvernement Basque, le gouvernement de Navarre, les députations forales et l'OPLB

- concevoir et mettre en œuvre les projets

○ **Insérer le bilinguisme dans le fonctionnement et les activités du service transfrontalier**

➔ dans les supports de communication: individuels (courriers, dossiers, informations diverses...) et collectifs (sites internet, campagnes de sensibilisation, presse...) ainsi que dans la communication interne

➔ en proposant des formations à la langue basque aux agents volontaires

➔ dans tous les projets transfrontaliers développés par la Communauté Pays Basque:

- travailler avec le service transfrontalier afin de repérer les projets

- intégrer la langue basque dans les projets transfrontaliers de la Communauté Pays Basque: communication, signalétique, services et activités etc.

# MUGAZ GAINDIKO LANKIDETZA

Mugaldeko lurraldea izanik Euskal Hirigune Elkargoak kokapen geografiko estrategikoa du Europa mailan. Beraz, mugaz gaindiko lankidetzak garatzeko nahikeria du, politika guzietan, eta bereziki hizkuntza politikari dagokionez. Euskararen lurraldea mugaren bi aldeetan dago. Nola Euskal Autonomia Erkidegoan, hala Nafarroan, euskararen aldeko politikak martxan daude; euskaldun kopurua handia da, eta etengabe gora segitzen du.



## HELBURUA:

MUGAZ GAINDIKO HARREMANAK GARATZEA EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOAREN HIZKUNTZA POLITIKAREN ESKUHARTZE ARLO GUZIETAN, ETA EUSKARA MUGAZ GAINDIKO HARREMANEN HIZKUNTZA BILAKARAZTEA

○ **Mugaz gaindiko harremanak garatzea Eusko Jaurlaritzarekin, Nafarroako Gobernuarekin eta Foru Aldundiekin, herri eta mankomunitateekin, Euskal Elkargoaren hizkuntza politikaren esku hartze arlo guzietan**

➔ euskararen erabilpen dinamikak zabaltzeko ekintzak antolatzen segitzea

- Sareuska sarea (Bortziriak, Hego Lapurdi eta Bidasoa-Txingudi) irautaraztea eta garatzea proiektu berrien inguruan: administrazioan, merkataritzan, turismoan, gazteen arteko trukeetan, helduen euskalduntzean, etab.

- herriekiko partaidetzak mugako beste eremuetara hedatzea (Zugarramurdi, Urdazubi, Erronkari, Zaraitzu, Baztan, Luzaide etab.)

- euskararen lurralde osoa estaltzen duten proiektuetan parte hartzea. Adb: Euskaraldia.

➔ hizkuntza politikako eragileekilako trukeak segitzea eta garatzea eta tresnak mutualizatzea: hizkuntza politikari lotu formakuntzak (Udaltop, etab.), hizkuntza tresnak, etab.

➔ lankidetzak arlo berriak zehaztea eta obratzea

- Euskal Elkargoaren hizkuntza politikako arlo bakoitzean, lehentasunezko lankidetzak ardatzak identifikatzea

- hizkuntza politikari buruz dauden mugaz gaindiko lankidetzak koadroko koherentzia lantzea, Eusko Jaurlaritzarekin, Nafarroako Gobernuarekin, Foru Aldundiekin eta EEPrekin lankidetzan

- proiektuak sortzea eta obratzea

○ **Mugaz gaindiko zerbitzuaren jarduerak eta funtzionamenduan elebitasuna sartzeko**

➔ komunikazio euskarrietan: bakarkakoetan (gutunetan, txostenetan, orotariko informazioetan...) eta taldekoetan (webguneetan, sentsibilizazio kanpainenetan, prentsan...), baita barne komunikazioan ere

➔ formatzeko aukera eskainiz langile nahiantei

➔ Euskal Elkargoak garatzen dituen mugaz gaindiko proiektu guzietan:

- mugaz gaindiko zerbitzuarekin lan egitea, proiektuen berri ukaiteko

- Euskal Elkargoaren mugaz gaindiko proiektuetan euskara sartzeko: komunikazioan, seinaleetan, zerbitzu eta jardueretan, etab.



# MODALITÉS DE MISE EN ŒUVRE

## 1/ COMPLÉMENTARITÉ AVEC L'OFFICE PUBLIC DE LA LANGUE BASQUE (OPLB)

L'action de la Communauté d'Agglomération Pays Basque s'inscrit dans le projet de politique linguistique partagée défini et mis en œuvre au sein de l'Office Public de la Langue Basque. L'OPLB et la Communauté Pays Basque veilleront à articuler leurs actions et initiatives de manière complémentaire, dans un souci permanent d'efficacité, de cohérence, de lisibilité et de respect des prérogatives de chacun. L'OPLB pourra intervenir sur les champs de compétences de ses membres (Etat, Région, Département, Communauté Pays Basque) dans le cadre des missions qui sont les siennes.

## 2/ COLLABORATION AVEC LES OPÉRATEURS LINGUISTIQUES

Dans le cadre de la mise en œuvre de sa politique linguistique, la Communauté Pays Basque pourra développer des partenariats avec les opérateurs linguistiques. Porteurs de la question de la langue basque depuis des décennies, les opérateurs ont développé des savoir-faire et des dispositifs éminemment structurants. Aujourd'hui encore, de larges pans de la politique linguistique sont mis en œuvre par le secteur associatif.

### La mise en place de partenariats

Par souci d'efficacité, la Communauté Pays Basque pourra donc travailler avec le secteur associatif dans le cadre de partenariats ou d'une commande de prestation.

## L'aide à la mobilisation des financements de droit commun du bloc local

En lien avec la fonction d'aide à la professionnalisation et à la structuration de l'OPLB, la Communauté Pays Basque travaillera à une meilleure mobilisation des financements de droit commun du bloc communal.

## La création d'un dispositif de concertation permanent

Pour la réussite de la politique linguistique, il est nécessaire d'arrimer la société civile à sa mise en œuvre. Ainsi, la Communauté Pays Basque souhaite mettre en place un dispositif de concertation pérenne, réunissant à la fois les opérateurs majeurs du secteur de la langue basque (AEK, Seaska, Uda Leku, Euskaltzaindia, Associations de parents d'élèves, Zabalik, Ikas, etc.) et les associations œuvrant à l'échelle des bassins de vie. Ce dispositif aura pour objectif de collecter les retours des opérateurs de terrain et des locuteurs bascophones, afin d'alimenter les travaux d'évaluation et d'adaptation de la politique linguistique de la CAPB. Le fonctionnement de ce dispositif de concertation sera précisé ultérieurement.

# OBRAZTEKO MOLDEAK

## 1/ EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOAREKIKO (EEP) OSAGARRITASUNA

Euskal Hirigune Elkargoaren hizkuntza politikak EEPren baitan zehazten eta obratzen den hizkuntza politika partekatuarekin bat egingen du. Hala, EEPk eta Euskal Hirigune Elkargoak ekintzak eta ekimenak osagarritasunean antolatuko dituzte, eraginkortasuna, koherentzia, irakurgarritasuna eta bakoitzaren egitekoen errespetua beti gogoan atxikiz. EEPk bere kideen (Estatua, Eskualdea, Departamendua, Euskal Hirigune Elkargoa) eskumen eremuetan eragiten ahalko du, haren eginkizunei jarraikiz.

## 2/ HIZKUNTZA POLITIKAKO BESTE ERAGILEEKILAKO LANKIDETZA

Horrez gain, bere hizkuntza politika obratzeko, Euskal Hirigune Elkargoa hizkuntza eragileekin partaidetzan aritzen ahalko da. Izan ere, azken horiek hamarkadak daramatzate euskararen alde egiten, eta, denborarekin, ezagutzak, trebetasunak eta dispositibo egituratzaileak garatu dituzte. Ondorioz, hizkuntza politikaren adar anitz elkarteen munduak ditu oraino aitzinarazten.

### Partaidetzak lotzea

Eraginkortasuna gogoan, Euskal Hirigune Elkargoak elkarrekin lan egiten ahalko du, pardaidetza batzuen baitan edo zerbitzu hornitzeak baliatuz.

## Tokiko blokearen zuzenbide komuneko finantzamenduak mobilizatzen laguntzea

Gainera, EEPren profesionalizatzeko eta egituratzeko laguntza funtzioarekin loturik, Euskal Hirigune Elkargoa herri blokearen zuzenbide komuneko dispositiboak hobeki mobilizatzen ahaleginduko da.

## Elkar aditze dispositibo iraunkorraren sortzea

Hizkuntza politikak bere helburuak bete ditzan, ezinbestekoa da gizartearekilako lankidetzak. Beraz, Euskal Hirigune Elkargoak elkar aditze dispositibo iraunkorra sortu nahi du, bizitza eremuetan ari diren elkarrekin eta euskalgintzako eragileak (AEK, Seaska, Uda Leku, Euskaltzaindia, buraso elkarrekin, Zabalik, Ikas, etab.) bilduko dituen. Dispositibo horren xedea terrenoko eragileen eta euskal hiztunen ikuspegitik hizkuntza politikari buruzko proposamenak biltzea da, Euskal Hirigune Elkargoaren hizkuntza politikaren ebaluaketa eta egokitzapen lanak elikatzeko. Elkar aditze dispositibo horren funtzionamendua berantago zehaztuko da.

### 3/ SUIVI ET ÉVALUATION

Il conviendra d'effectuer un suivi permanent du processus de mise en œuvre de cette politique linguistique au regard de l'objectif fixé: la structuration d'une offre bilingue dans les services à la population sur l'ensemble des bassins de vie. Il conviendra également de mesurer son impact sur la transmission et l'utilisation de la langue basque. Pour ce faire dans le cadre du dispositif d'évaluation, la Communauté d'Agglomération Pays Basque définira une batterie d'indicateurs de suivi et fixera des objectifs précis à atteindre par domaine d'intervention et par bassin de vie.

Toutefois les dix années d'existence de la politique publique en faveur de la langue basque ont également permis de constater que même lorsque toutes les conditions sont réunies (la demande de la population est avérée et les élus manifestent la volonté de faire) la politique linguistique se heurte parfois à des entraves de nature juridique. On peut citer en guise d'exemple l'impossibilité de profiler des postes langue basque dans la fonction publique territoriale, l'impossibilité pour une commune de financer la construction d'une nouvelle ikastola, l'impossibilité d'utiliser des signes diacritiques non usités en langue française dans les documents d'état civil etc.

### 4/ EXPÉRIMENTATION LINGUISTIQUE

La politique linguistique de la Communauté d'Agglomération Pays Basque, et toute politique publique en faveur de la langue basque, évoluent aujourd'hui dans le cadre d'une démarche volontariste, dans le respect de la libre adhésion des acteurs et des locuteurs.

Les mécanismes d'expérimentation juridique prévus par la Constitution pourraient permettre de lever ces entraves. Ils permettent de déroger à des dispositions législatives sous réserve d'une autorisation de l'État, par décret ou par une loi.

La Communauté Pays Basque a l'ambition de tenir un rôle moteur dans le processus de mise en œuvre de la politique linguistique partagée. À ce titre, elle souhaite lancer une étude pour la définition d'un projet d'expérimentation linguistique. Il s'agira de repérer les blocages de nature juridique auxquels la politique linguistique se trouve aujourd'hui confrontée et de définir précisément l'ensemble des mesures à expérimenter.

Une fois les contenus du projet d'expérimentation définis, la Communauté d'Agglomération travaillera en lien avec les autres acteurs publics mettant en œuvre une politique linguistique en faveur de la langue basque ou en faveur d'une autre langue régionale, pour solliciter auprès du gouvernement l'exercice du droit à l'expérimentation prévu dans la constitution. Ce projet d'expérimentation linguistique peut permettre d'ouvrir une nouvelle étape dans le processus de construction de la politique publique en faveur de la langue basque.

La langue basque bénéficie sur notre territoire d'une forte adhésion de la population et des élus locaux, ce qui a permis à la politique linguistique d'opérer des avancées significatives dans ce cadre facultatif, et de grandes marges d'évolution subsistent encore.

### 3/ JARRAIPENA ETA EBALUAKETA

Hizkuntza politikaren obratzearen etengabeko jarraipena egin beharko da, finkatu helburuari begira: biztanleendako zerbitzuetan eskaintza elebiduna egituratzea, bizitza eremu guzietan. Halaber, euskararen transmisioan eta erabilpenean duen eragina neurtu beharko da. Horretarako, ebaluaketa dispositiboaren bidez, Euskal Hirigune Elkargoak jarraipen adierazle zerrenda zehaztuko du eta helburu zehatzak finkatuko ditu, esku hartze eremuka eta bizitza eremuka.

### 4/ HIZKUNTZA ESPERIMENTAZIOA

Euskal Hirigune Elkargoaren hizkuntza politika eta euskararen aldeko politika publiko oro, borondatezko koadro batean obratuko da, hiztun eta eragileen hautu librearen errespetuan.

Gure lurraldean euskarak herritar eta hautetsien atxikimendua badu, eta, ondorioz, azken hamar urte hauetan borondatezko koadro horretan hizkuntza politika nabarmen aitzinatu da, eta aitzinatzekeko posibilitateak handiak dira oraino.

Halere, euskararen aldeko politika publikoa obratu den hamar urte horietan agertu denez, nahiz eta baldintza guziak beteak izan (gizartearen eskaera bada eta hautetsiek egiteko nahikeria ere badute), batzuetan, oztopo juridikoek hizkuntza politikaren garapena traba dezakete. Hauen artean aipa daitezke: lurraldeko funtzio publikoko postuak euskarari bereitzeko ezintasuna, herri batek ikastola berri baten eraikitzeke ezintasuna, frantses alfabetoan erabiltzen ez diren zeinu berezien erabiltzeke ezintasuna egoera zibileko dokumentuetan, etab.

Konstituzioko lege-esperimentazio mekanismoek, oztopo horiek ken ditzakete. Izan ere, legezko neurri batzuen ez betetzeke aukera eman dezakete, Estatuak legez edo dekretuz hala baimendurik.

Hizkuntza politika partekatuaren obratzea akuitatzeko engaiamenduari jarraikiz, Euskal Hirigune Elkargoak hizkuntza esperimentazio proiektu baten definitzeko azterketa lana abiatu nahi du. Lan horren xedea, izaera juridikoko oztopoen zerrendatzea eta kasuan kasu esperimentatu beharreko neurrien zehazki definitzea da.

Esperimentazio proiektuaren edukia finkatu ondoan, Euskal Hirigune Elkargoak euskararen edo tokiko beste hizkuntza baten aldeko hizkuntza politika daramaten beste eragile publikoekin lan egingen du, konstituzioak aurreikusten duen esperimentazioa baliatzeko eskubidea galdetzeko gobernari. Esperimentazio proiektu horrek euskararen aldeko politika publikoaren eraikitzeke bidean urrats berri bat zabal dezake.





Document réalisé par la Communauté d'Agglomération Pays Basque  
Euskal Hirigune Elkargoak obraturiko argitalpena  
Foch etorbidea 15, avenue Foch CS 88507 - 64185 BAYONNE / BAIONA Cedex  
[www.communaute-paysbasque.fr](http://www.communaute-paysbasque.fr)

Conception graphique et mise en page / Sorkuntza grafikoa eta muntaketa : Studio WAAZ  
Traductions / Itzulpenak : Nahia Zubeldia eta Txomin Urriza  
2018